



ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

OHARRA: Dokumentu hau informazioa emateko helburuarekin eginda dago. Aldizkari ofizialetan argitaratutako testu onartuek bakarrik dute balio legala

Onartuta: Udalbatzak 2015/10/26an

Argitaratuta: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015/12/18an

ONDASUN HIGIEZINEN GAINKO ZERGAREN KUOTAK FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14.3 artikulua ematen dion zilegidura erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du zerga honen tipoa.

II. KARGA-TASA

2. artikulua

Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tipoa ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratu da finkatua.

Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tipoa ERANSKINEAN adierazten den ehuneko hainbestean geratu da finkatua.

III. OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTAK

3. artikulua

Hiri ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, oinarri ezargarría ondasunen balio katastrala izango da.

Landa ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan, oinarri ezargarría ondasunen balio katastrala izango da.

Zerga hau zehazteko orduan, aurreko ataletan adierazitako oinarri zergagarriak hartu, Ordenantza honek 2. artikuluan jasota dituen tipoak hartu, eta oinarri bakoitzari dagokion tipoa aplikatuko zaio.

IV. KUDEAKETA ARAUAK

4. artikulua

1. Zerga hau kudeatu, likidatu, bildu eta ikuskatzeko gaitasuna Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango da, betiere Udalbatza Osoak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan; eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetu beharko da.

2. Hartuko den udal erabakia GAOn argitaratuko da

V. AMAIERAKO XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala, osagarri duen Eranskina, eta eranskinean jasotako karga-tasak, denak, 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta aplikatu egin beharko dira aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez diren bitartean.

ERANSKINA

Hiri Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kuotak zehazteko orduan, bi tipo egongo dira:

- 1.-Balorazio-ponentzien arabera, industria edo zerbitzu erabilerako lurzoruan dauden ondasunentzat: %0,4071
- 2.-Balorazio-ponentzien arabera, gainerako hiri-ondasunentzat: %0,1864

Landa Ondasun Higiezin gaineko Zergaren kuotak zehazteko tipoa (karga-tasa) %1,0556 izango da.

Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzek ez dute errekar gurik izango.

HOBARIAK ETA SALBUESPENAK

-a) Kuota osoaren %50eko hobaria higiezin sustatzaileei aplikatuko zaie, higiezin eraikinak -bai berriak bai eraberrituak- ibilgetuaren artean agertzen ez badira. Interesatuak obrak hasten diren zergaldiaren barruan eskatu beharko dute hobaria, eta aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da. Epe horrek inoiz ezingo ditu hiru zergaldi gainditu.

-b) Famili ugarietzat, diru-sarrera gordinen muga ezarrita. Hobarien portzentajeak, diru-sarreraren eta seme-alaba kopuruaren arabera kalkulatu dira, honela hain zuzen:

Diru-sarrera gordinak

	0 €tik 24.000 €ra	24.000 €tik-50.000 €ra	50.000 €tik gora
3 seme-alaba	%90	%50	%15
4 seme-alaba	%90	%70	%40
5 seme-alaba edo gehiago	%90	%90	%60

Familia ugarian seme-alabetako batek elbarritasunen bat edo lan egiteko ezintasunen bat aitorturik izanez gero, familia unitateko seme-alaba kopurua egokitu egingo da eta kide hori bi kide bezala kontatuko da.

Zerga-hobariaren mugak

- Katastro-balioa 150.000 € baino handiagoa bada, hobaria aplikatu aplikatuko da, baina gehienez ere balio horren gainean.
- Diru-sarrera gordinen muga zehazteko, hobaria aplikatu beharreko aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik hartuko da, betiere familia ugaria osatzen duten kide guztiak kontuan hartuta.
- Familia ugaria izateagatik ematen den hobaria bateraezina izango da OHZren gainean ezarritako edo ezar daitekeen beste edozein hobarirekin.
- Hobaria soilik aplikatuko zaio familia unitatea bizi ohi den ondasun higiezinari. Finka horretan, etxebizitzaz eta ganbara edo trastelekuaz gain dauden beste lokalek ez dute hobaririk izango.

- Ondasun higiezin bati ohiko bizitegi izaera emateko, ezinbesteko baldintza izango da ondasun higiezin horretan eroldaturik egotea zerga-hobaria izateko eskubidea duten familiako kide guztiak.

- Ez du izango atzeraeraginik eta, kasu konkretu honetan, hobari-eskabideak eragina izango du aurkezten den urtetik -barne-.

Hobaria lortzeko baldintza formalak.

Hiri ondasunen OHZren subjektu pasiboek aplikazioko zergaldiari dagokion sortze egunean (urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean) familia ugariaren titular badira, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Interesdunak sinatutako eskabidea; bertan, identifikatuko beharko dira eskatzailea (izen-abizenak, NAN) eta hobaria eskatzeko xede den ondasun higiezina.

- Familia ugariaren titulua edo fotokopia konpultsatua.

- Familia osatzen duten kide bakoitzaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren -hobaria aplikatu beharreko aurreko urtekoari dagokiona- fotokopia konpultsatua edo bestela egin behar ez izanaren ziurtagiria.

- Hobaria izapidetzeko, ordaindutakoaren zati bat itzuliko zaie; eta horretarako, aurretik ordaindu izana egiaztatu beharko dute dagokion ordainagiriaz.

-Hobari-eskaera aztertu ondoren, Alkateak edo honek eskuordetutako organoak dagokion erabakia hartuko du eta, eskatzaileari dagokion hobaria jakinarazi ondoren, Udal Diruzaintzak itzulketa egingo du. Urte batean hobaria aitortu bada eta familiaren egoera aldatzen ez bada, hurrengo urteetan dokumentazioa aurkeztu eta baldintzak betetzen dituela justifikatu ondoren, dagokion diru-itzulketa egingo dio Udal Diruzaintzak, berariazko udal erabakirik gabe.

-c) Babes ofizialeko etxebizitzek hobaririk EZ izatea.

-d) 12/1989 Foru Arauaren 4. artikuluko c atalak xedatzen duen salbuespenari buruz, landaketaren lehen 15 urteetan izango dute, landaketa egiten den egunetik kontaktzen hasita.

-e) 1994ko urtarrilaren 1etik aurrera, zerga honetatik salbuetsita geldituko dira hezkuntza-itunaren erregimenera bildutako ikastetxe pribatuak, betiere kontzertatutako ikastetxe izaera -guztiz nahiz partzialki- gordetzen duten bitartean.

-f) 13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuak izanez gero, %95eko hobaria izango dute.

-g) Zergaren kuota osoaren % 50eko hobaria izango dute Bizigune programaren barruan erabilera-lagapena duten ondasun higiezinek. Bizigune programa Eusko Jaurlaritzak onartu zuen 2002ko abenduaren 30ean, etxebizitza hutsei buruz emandako 316/2002 Dekretuaren bidez. Dena den, etxebizitzaren balio katastrala 150.000 eurotik gorakoa bada, hobaria aplikatu aplikatuko da, baina gehienez ere balio horren gainean.

Izaera orokorrez, ematen diren salbuespen eta hobariak eskaera egin eta ondorengo zergalditik aurrera izango dute eragina.

Hobari fiskalak izateko, eskatu egin beharko dira; norbaitek eskatu ondoren emango dira, hala badagokio.

Hobari desberdinak ezin dira metatu, hobari altuena aplikatuko da beti.

ALKATEA

IDAZKARIA

KONTUHARTZAILEA

BERGARAKO UDALA

Ondasun higiezinaren gaineko zergaren ordenantza